

ELLACURIA FUNDAZIOA



2014 TXOSTENA

**Etorkin eta bere erakundeen
alboan egon, zerbitu eta
defendatu.**


SJM
jesuiten etorkinen zerbitzua
servicio jesuita a migrantes

Elkarrekin bizi eta bizikide izateko loturak

Gure gizarteetan aniztasunean elkarrekin bizitzea ez da erraza. Krisialdiak gogorrago jotzen ditu **talde ahulenak**. FOESSA txostenak dioenez, Euskadin etorkinek **bazterketa soziala** pairatzeko 2,5 bider aukera gehiago dituzte. Gainera, arazo hau gehiago paraitzen dutenei, beraiek ez sortutako arazo honen sortzailatzat seinalatzen zaie. Politikari ardugabe batzuek giro hori manipulatzan dute, giza taldeak susmopean jarritz. Elkar bizitza sustatuz barik, bozka batzuegatik haustura sozialean sakonduz.

Era berean, **Mediterranean itsasoan** hildako etorkinen marka guztiak hautsi egin dira. Itsasora jo zuten 4000 lagun hotzez edo itota hil egin ziren. Askok gerratik alde egiten edo bizitza aurrera ateratzeko aukeren bila. Gainera Ceuta eta Melillako mugek **giza eskubideen bortxaketen** lekuko izan dira, igeri egiten Ceutara sartzen saiatu ziren 15 gazteen hilketa barne.

Errealitate krudel hauen aurrean, Ellacuria funda-




zioak bi lan ildo humil eta osagarriengatik apustua egin du. Lehenengoa, pertsona ezberdinen artean **loturak sustatu** ditzakeen guneak sortzea. Aurreiritziei aurre egiteko bestea zure bizitzan sartzea da hoberena. **Bestea “gu” izatera pasatzen da.** Harreman dinamika honetan, pertsonak indartu egiten dira **partaide izateko hiritar aktiboak bezala**. Bigarrena, pertsonen laguntza zuzenak zilegitasuna ematen digu beraian eragina duten diskurtso eta politiken inguruan zerbait esateko. Hori da sare desberdinekin batera aurrera daramagun eragin publikoaren ildoak. 2014ko memoria honek lan hau islatu nahi du.

Miguel González - Zuzendaria

PROGRAMA	PARTAIDEAK	EKINTZA MOTA
Kultura artekotasun eta partaidetzarako gazte saioa	80 atzerritar gazte ez akonpainatuak	Topaketa eta aisialdi guneak, formakuntza guneak, boluntariotza soziala, harrera guneak.
Babel dorrea saioa. Indartzea eta norbere laguntza	200 pertsona, gehienak emakumeak.	Norbere laguntza taldeak, formakuntza taldeak, parte hartze eta aldarrikapen taldeak.
Elkarte laguntza saioa	56 etorkinen erakunde	Aholkularitza, parte hartze foroetan laguntza, formakuntza, liderrentzat coaching.
Parte hartze prozesuak udalerrietan	Barakaldo, Basauri, Durango y Ermua	Plataforma eta elkarte sareetan parte hartzeko laguntza. Hiritar elkarriketak. Auzo topaketak.
Elkarbizitzarako sentzibilizazioa	1000 pertona parte hartzaile 150 pertsona antolaketan	17 ekintza hezkuntza guneetan. 27 formakuntza eta topaketa ekintza gizarteari zuzenduak.
Erlijio arteko elkarriketa	8 erlijio komunitate	Erlijio arteko elkarriketarako mahaia. Gurtze guneak uztea. Erlijio aniztasunaren agenda. Urteroko jardunaldiak.
Eragina eta ikerketa	3 ikerketa proiektu, 2 argitalpen, 2 seminario	Erlijio aniztasuna, aniztasunaren kudeaketa positiboa, gazteen egoera.
Harrera gunea	113 pertsona	Baliobide sozialetara bideratzea
Boluntariotza	89 boluntario	Ellacuriako lanean sartuta

non gaude?
Padre Lojendio, 2-1º
48008 Bilbao
944465992
www.fundacionellacuria.org
info@fundacionellacuria.org
[facebook.com/centroellacuria](https://www.facebook.com/centroellacuria)
[@centroellacuria](https://www.instagram.com/centroellacuria)

gure lana BEGIRADA BATEAN



Taldeen Alboan

TAILERRAK

SENTSIBILIZAZIO

KOMUNITATEARI
ZERBITZUAK
BOLUNTARIOTZA

HARRERA
KANPALDIK

Gazteak eta kultura arteko parte hartzea

Familia gabeko atzerritar gazteak dira Gaztelduak programako protagonistak. Beste gazteekin harreman guneak sustatzea bilatzen du, formakuntzarako, aisialdirako, boluntario konpromisurako, eta taldearen adierazpen positiboa lortzeko.

2014an 80 gazteekin lan egin dugu, hurrengo ekintzak jorratuz:

- **24 topagune ekintza eta tailer desberdinak egiteko:** harrera tailerrak, hizkuntza tailerrak, asteburu irteerak, gabon eta uda kanpamenduak, beste taldeekin elkar lanean (eskautak, Alboan...)

- **12 ekintza lan boluntarioan eta komunitatearentzako lanetan:** hondartzaren garbiketa ekologikoa, merkatu solidarioa, gabon kanpainak, eskaut kanpamenduak...

- **8 sentsibilizazio kanpainak:** egunkari artikulua, irrati elkarrizketa, eskoletan sentsibilizazio saioak, artikulua ellacuriako blogean.



Gauean- Uretamendi:

Harrera eta komunitate hazkuntzako gunea. Aurten Gauean proiektua martxan jarri dugu Uretamendi parrokiarekin bat. Honi esker, 9 gazte bazterketa sozialean zeudenak neguan harrera gunean egon dira, eta era berean auzoarekin harremanak estutuz 60 pertsona baino gehiagorekin, gazte hauen errealitatera hurbildu izan nahi direnak.



Harrera:

Gure bulegoetara 120 baino pertsona gehiago hurbildu dira urtean zear laguntza eta orientabide bila. Denak lagundu genituen, bai gure programetan sartuz bai beste erakundeetako zerbitzutara bideratuz.



Autolaguntza eta indartzea: "Babel Dorrea"

Babel Dorrea migrazioetan esperientzia duten emakumeen artean harreman sareak beraien autonomia indartzeko sustatu nahi dituen taldea da. Horretarako, beraien artean adiskidetasuna eta laguntza sustatzen dituzten harremanak errazteko guneak sortzen dira, konpetentzia sozialak eta peretsonalak indartzen dira, eta ikusgarritasun eta eragin soziala errazten dituzten beste erakundeekin lagun egiten dugu.

2014 urtean zehar, 200 pertsonak parte hartu dute hurrengo ekintzetan:

- **Topaketa eta elkar laguntza:** lan planaren onarpenera eta sormena, fondo solidarioa, biodantza, urtebetetze jaiak, lagun eta amaren eguna, Emmet Gowinen erakusketari bisita, txangoak, Munduko arrozak.

- **Aldarrikapena:** Kamara gainean erakusketak, martxoaren 8ko manifestazioan parte hartzea, etxeko langileen inguruko hausnarketa eta proposamena, parte hartzea soldaten taulen sormenean eta prentsa saioa, mahai ingurua eskubide zaintzari buruz, sare Kafeminista.

- **Formakuntza:** "Kamara gainean" proiektua, atzerritarren legea, bioetika eta pertsona helduen laguntza espiritualak, hizketa konpetentziak eta indartze elkarrizketak, geriatria tailerrak, ingelesa, informatika, opilak eta pintxoak.

Lan taldeaz gain, egunerkoak **laguntza pertsonalizatua** eskatzen du: 35 lagun atzerritar tramiteetan, genero bortxakerian, lan abusuak, estrés bideratzea.

Elkarteak eta elkarte prozesuak indartzen

Elkarteratzea hiritar partaidetza eta giza ehundura sortzen dituen esperientzia da. Etorkinen elkarteratze munduari laguntza ematen diogu hiritar konpromisu gune eta baeraien ahotsa esparru publikoan entzuteko tresna izan daite.

2014an zehar hurrengo ekintzak egin ditugu:



Barakado eta Basauriko **elkarte plataformak** babestu ditugu 20 asanbaldetan, udalekin harremanak errazteko eta hainbat ekintzen aurrera eramatean.

56 elkartei laguntza eman diegu hurrengo gaietan: funtzionamendua, elkarte helburuak, proiektuen sormena eta justifikazioa, ekintza konkretuak.

Deusto Bussiness schooleko **coaching** proiektuan parte hartu dute 4 emakume eta 5 gizon, etorkinen elkarreetako buru moduan.

16 elkarteekin **laguntza ituna sinatu dugu**, Ellacuriaren laguntza eta aholkularitza, eta lokalak uztea eta ekintzen programaketa barne.

Hainbat **sentzibilizazio** ekintza antolatu ditugu: europar hautagaien mahai borobila etorkinen inguruko politikei buruz, etorkinen egun internazioala ospatzeko jaia, giza eskubideen nazioarteko eguna ospatu dugu Amnistia Internazionalarekin.

Hainbat **formakuntza** tailer antolatu ditugu, etorkinen aurkako xurumurruei aurre egiteko, elkarteratze esperientziak konpartitzeko, elkarte ekonomiaren inguruan, Bilboko udalaren dirulaguntza eskenintzei inguruan.



Durango eta Ermuko **hiritarren artean erlakarriketa** eta topaketa guneak sustatu ditugu.

Diskurtsoa aldatzen

Gure sentzibilizazioak aldaketak eragin nahi ditu bai pertzepzioetan, bai pertsonen jarreraren eta izakeran, eta baita irtzi publikoan kultura arteko elkarbizitzarekiko. Ikerketarekin, esparru publikoan kudeaketa positiboa lortzeko errealitatearen azterketa eta proposamenak ematen ditugu.

2014an zehar, 1000 pertsona baino gehiago parte hartu dute hurrengo ekintzetan:

- **Formakuntza saioak:** Kultura arteko elkarbizitzari buruzko formakuntza eman dugu irakasleei, udaltzaingoei, hezitzaileei, aisialdirako monitoreei...


- **Sentzibilizazio saioak:** sentzibilizazio saioak eraman ditugu 17 eskola taldeei.

- **Jardunaldiak eta saioak:** "Ezinbesteko Afrika" kanpaina aurrera eramaten lagundu dugu, "Egin to be" proiektua presentatu dugu, "Bizilagun" proiektuaren animazioan parte hartu dugu, kultura arteko hiru kontzertu antolatu ditugu.

- **Laguntza:** Bilboko udaleko haur eta gazte gabonako ekintzetan kultura arteko ikuspuntua sartzen lagundu dugu.

- **Ikerketa eta hausnarketa:** "Arrazoizko egoitza" ikerketaren diseinua aurrera atera dugu, eta Integrim seminarioan parte hartu dugu. Parte hartze sozialaren erronkei buruzko seminarioa antolatu dugu.

- **Komunikazioa:** web orrialde berria atera dugu, twitter eta facebook profilekin batera, gure lana eta mezua zabaltzeko.



Erljio arteko elkarriketa

Gure ustez gure gizartean dauden erlijio desberdinen arteko elkarriketa gizarte ireki eta justu bat lortuko duen hiritartasun baloreen iturri izan daiteke.

2014an zear erlijio komunitateen mahaiari laguntza eman diegu gurtze askatasunaren aurkako legeak gaitzeko. Gainera, DIAR taldearekin, erlijio arteko jardunaldiak prestatu ditugu. Aurten ere erlijio arteko agenda argitaratu dugu, eta gainera, hiru mahai borobil erlijio artekotasunaren inguruan antolatu ditugu.




Txosten ekonomikoa

2014 urtean, hemen laburbilduko ekimenak 387.000 euroko dirusarrerari esker posibleak izan dira. Horrela, 384.000 euro inbertitu izan dugu beraietan (zifrak biribilduak)

Gure dirusarrerak hiru zatitan banatu daitezke. Ia heren bat fundazioko patronoetatik dator. Gutxigorabeherako beste heren bat, dirulaguntzek osatzen dute, publikoak zein pribatuak. Gainontzeko herena emariekin, zerbitzuen salmentarekin eta interesekin sortzen da.


Hona hemen grafikoak:

Diru Sarrerak 2014



%28,6	PATRONAK
%15	DIRULAGUNTZA PUBLIKOA
%14,9	DIRULAGUNTZA PRIBATUA
%14,5	ZERBITZUEN SALMENTA
%14,5	EMARIAK
%12,5	INTERESAK

Gastuak 2014



%28,6	AKONPAINAMENTUA
%11,7	ZERBITZUAK
%1,6	KUDEAKETA
%1	MATERIALAK
%10,9	EKIMENAK
%0,5	AMORTIZAZIOAK

Ignacio Ellacuría Gizarte Fundazioak kontu-ikuskaritzaren azpian borondatez jartzen du bere burua urtero.

